## kalian

21 osteguna | 19:30 | Herriko Plazan



kale antzerkia

### “Pronostiko erreserbatua”

Gure plaza eta kaleetara mediku talde ganoragabe bat iritsi, da Larrialdi baten kontura deitu dituzte. Etsipen epidemia bat hedatuko den beldur dira eta kalean aurkitzen duten jendeari azterketa egingo diote. Ez dakigu gaixoek nola erantzungo dioten tratamenduari, eboluzioa desberdina izango baita gaixoaren erantzunaren eta tratamenduaren arabera. Baina mediku talde ganoragabe hau goxotasuna eta umorea errezetatzeko prest dator iragarpen guztien kontra.

## Antolatzailea

Sexologia zerbitzua
943 25 20 66
www.sexologiazerbitzua.com

Arrasateko Gaztetxea

Arrasateko Udala

## Gaztetxian



Lesbianismoaren inguruko erakusketa

### “Bidean: ezkutukotik ikusgarritasunera 1977-2007”

10etik 14ra | 18:00 tik 20:00 arte | Gaztetxian

Kartel, aldizkari eta dokumental ezberdinen bidez 1977tik aurrera lesbiana kolektibo nahiz mugimendu feministak egindako borrokaren lorpenak ikusgai daude.

Kronologikoki ordenatutako 18 panelen bidez, emakume lesbianen borroken helburu eta erreibindikazioen ibilbide historikoa egiten da.

14 osteguna | 18:00 | Gaztetxian

Erakusketaren bisita gidatua Aldarte-ren eskutik



Dokumentalaren emanaldia

### “Mi sexualidad es una creación artística”

10 igandea | 18:30 | Gaztetxian

Annie Sprinkle-k postpornoa sortu zuen 90. hamarkadan pornografia menderatzaile eta emakumearen sexualitatearen adierazpide osatu gabeari eta erabiliari erantzuna emateko. Postpornoa Bartzelonan garatzen ari da 2000. urtetik hona. Hiri horretan jatorri, motibazio eta ezaugarri ezberdinak dituzten pertsona eta kolektiboak harremanak izan dituzte. Sexualitatea adierazteko era ezberdinek (Do It Yourself bideoak, performanceak edo espazio publikoko esku hartzeak bezalakoak) sortarazi dute artea eta aktibismo politikoa banagaitza den eszena.

13 asteazkena | 19:00 | Kulturateko areto nagusian

“Crítica del pensamiento amoroso” liburuaren aurkezpena Mari Luz Esteban antropologoaren eskutik.

# Sexualitateak

ekainean Arrasaten

erakusketa | antzerkia | pelikulak



## Shortbus

**Zuzendaria:** John Cameron Mitchell
**Iraupena:** 102 min
**Generoa:** Drama

06 asteazkena | 19:00 | KULTURATE Areto nagusian

New York-eko hirian kokatzen den film honetan,sexualitatea eta sentimenduen artean bidaiatzen duten hainbat pertsonaiaren bizi esperientziak kontatzen dira. Sofia(Sook-Yin Lee) orgasmorik inoiz izan ez duen sexologoa da; badira urte batzuk plazerra simulatzen duela bere senar Rob-ekin (Raphael Barker). Severin (Lindsay Beamish) “menderatzailea” ezagutuko du, eta bera laguntzera animatuko da.

Sofiaren bi bezero, James (Paul Dawson) eta bere bikotea Jamie (PJ DeBoy), beraien sexu harremanetan hirugarren bat sartzea pentsatzen ari dira, Ceth (Jay Brannan), baina Jamie-k ez dauka oso argi

Guztiak “Shortbus” -en batzen dira,konbentzionaltasunetik at, politika, artea eta sexua nahasten diren espazioan. New York hiria irailaren 11a eta Bush urteetatik aurrera ez da bizitza erraza den leku bat.



## Transamérica

**Zuzendaria:** Duncan Tucker
**Iraupena:** 103 min
**Generoa:** Drama Komedia

12 asteartea | 19:00 | KULTURATE Areto nagusian

Bree (Felicity Huffman) genetikoki emakumea den transexuala da. Nahiz eta unibertsitateko formazioa izan, Los Angeleseko zonalde apal batean bizi da eta bi lan ditu. Bi lan horiekin emakume bihurtuko duen berrezarpen sexualaren ebakuntza ordaintzeko beste diru aurreratu nahi du. New Yorkeko poliziak telefonoz deitu eta droga-trafikoagatik espetxeratutako nerabea den Tobyren (Kevin Zegers) aitagatik galdetzen diotenean, Bree konturatzen da unibertsitateko ikaskide batekin bere gizon-bizitzan izan zuen harreman heterosexual batetik (“tragikoki lesbikoa”) semea jaio zela.

Modu instintiboan gertakari hori alde batera utzi eta egin nahi duen ebakuntzan eta horren ondoren izango duen etorkizunean zentratu nahi du, baina bere terapeutak esaten dio bere iraganari aurre egin behar diola eta onartu. Terapeutak ebakuntzarako eman behar duen baimen legalari baldintza bat jartzen dio: Tobyrekin egotea. Bree Tobyren bila joaten da New Yorkera, eta Los Angelesera itzultzeko ezuste eta emozioz beteriko bidaiari ekiten dio.



## El último verano de la boyita

**Zuzendaria:** Julia Solomonoff
**Iraupena:** 103 min
**Generoa:** Drama Komedia

20 asteazkena | 19:00 | KULTURATE Areto nagusian

Boyita, etxe ostean dagoen autokarabana zaharkitua Jorgelinaren txoko kuttunetakoa da. Bertan babesten da sarri,babestua sentitzen da espazio honetan

Oporraldia pasatzera joango da aitarekin eta bertan ezagutuko du Mario.Beraien artean sortuko den harremanak ondo gordetako sekretua bistaratuko du. Nerabezaroko aldaketa,kezka eta aurkikuntzetan murgilduko dira elkarrekin



## The kids are all right
## Los chicos estan bien

**Zuzendaria:** Lisa Cholodenko
**Iraupena:** 109 min
**Generoa:** Drama

27 asteazkena | 19:00 | KULTURATE Areto nagusian

Nic(Annette Benning) eta Jules(Julianne Moore) beraien seme alaba nerabeekin bizi diren lesbiana bikotea dira:Joni (Mila Wasikowska) eta Laser (Josh Hutcherson),biak inseminazio artifizalaren fruitu.

Bi gazteak beraien aita biologikoa,Paul (Mark Ruffalo) ezagutzeko irrikaz daude 18 urteak bete berri,Jonik bere aitari dei egitea erabakitzen du.Lehen hitzorduaren ostean inpresioa hain ona izanda,bere amei berri emango die

Sexualitateak
ekainean Arrasaten